

# **Kode-alternantzia**

## **lagun arteko gazte-hizkeran**

**2004-2005 IKASTURTEKO SAKONTZE EGITASMOA**

**AMETS ETXABE IRIBAR**

## **Eskerrak:**

Hitz hauen bidez, eskerrak eman nahi nizkioke Inma Muñoari lan hau egiten laguntzeagatik, bere laguntzarik gabe ezin izango bainuen lan hau burutu.

Eskerrik asko.

## **Aurkibidea:**

Laburpena.....	3. orrialdea
1- Sarrera .....	4. orrialdea
2- Kode-alternantzia.....	5. orrialdea
2.1- Hizkuntzak ukipenean.....	5. orrialdea
2.2- Elebitasuna eta kode-alternantzia.....	7. orrialdea
3- Ikerketa.....	10. orrialdea
3.1- Hiztunak.....	11. orrialdea
3.2- Metodologia.....	12. orrialdea
3.3- Materialak.....	13. orrialdea
3.4- Transkripzio-irizpideak.....	14. orrialdea
3.5- Kode-alternantziaren funtzioak.....	15. orrialdea
4- Ondorioak.....	25. orrialdea
5- Bibliografia.....	27. orrialdea
6- Eranskina.....	29. orrialdea

## **Laburpena:**

Lan honetan, gazteen lagunarteko hizkeran egiten den kode-alternantzia aztertu dut. Hasieran, kode-alternantziari buruzko hainbat ideia azaldu ditut; zerk eragiten duen, zein ikuspegitatik aztertu den...

Ondoren, ikerketa-lana egin dut, eta, horretarako, 22-24 urteko gazteak grabatu nituen. Lagin hori oinarritzat hartuta, kode-alternantzia zergatik eta zertarako egiten duten aztertu dut; hau da, gazte horietan, kode-alternantziak zein funtzio betetzen dituen.

Amaitzeko, ateratako ondorioak aurrez egindako beste ikerketa batzuekin alderatu ditut, eta kode-alternantziak Getarian eta gainerako herrietan antzeko funtzioak betetzen dituela frogatu ahal izan dut.

## 1-SARRERA

Hiznet gradu ondokoaren sakontze egitasmoa egiteko lagunarteko gazte-hizkeran egiten den kode-alternantzia hartu dut gaitzat; izan ere, egun, bizi-bizirik dagoen gaia da. Gazte-hizkeraren ezaugarrietako bat kode-alternantzia da. Kode-alternantzia hori hainbat lanetan aipatu izan da, besteak beste, Euskararen Kalitatea txostenean (Andoni Egaña, Joxerra Gartzia eta Kike Amonarriz), eta ni ezaugarri hori aztertzen saiatuko naiz.

Kode-alternantzia ez da gauza berria, aspaldiko kantu ezagunetan horren adibideak aurki ditzakegu; esaterako: “*artillero dale fuego, ezkontzen zaigula pastelero...*”. Getarian bertan ere bada horrelako kanturik: “*En época de invierno Getari honetan, se ve muy poca gente gabaz tabernetan...*”. Gehienetan, gainera, arazotzat edo kezka-iturritzat hartu izan da. Horri buruz bateko eta besteko iritziak daude: batzuentzat, hiztunen zabarkeria eta utzikeria da arrazoia; beste batzuentzat, berriz, hizkuntzaren gaitasun eskasa; eta, horiez gain, badira kode-alternantzia gazteen hizkeraren ikurra dela pentsatzen dutenak ere. Dena den, gai horri buruz asko hitz egin den arren, ikerketa soziolinguistiko gutxi egin da.

Gauzak horrela, sakontze egitasmo honetan, Euskara eta Gaztelaniaren arteko kode-alternantzia ikuspegi funtzionaletik aztertzen saiatuko naiz; hau da, Euskaraz ari garelarik, Gaztelaniara noiz, zergatik eta zertarako aldatzen den. Badakit azterketa oso xumea izango dela; izan ere, Getariako gazte talde batean oinarrituta ateratako ondorioak ezin dira orokortu. Baina lan hau etorkizunean egin daitezkeen ikerketen osagarri izan daiteke; esaterako: Getariako edo beste toki batzuetako gazteen alternantziari buruzko ikerketen osagarri. Aldi berean, herri txiki eta euskaldun batean ere kode-alternantzia eguneroko errealitate dela frogatzen saiatuko naiz. Horrez gain, kode-alternantziak funtzio jakin batzuk betetzen dituela azaltzen ere saiatuko naiz; hau da, alternantzia ez dela arrazoi jakinik gabe gertatzen den fenomeno azaltzen saiatuko naiz. Dena den, baliteke zenbait kasutan alternantziaren arrazoia zein den topatu ahal ez izatea.

Laburpenean azaldu bezala, lan hau hiru zati nagusitan banatu da. Lehenik, kode-alternantziari buruzko zenbait ideia azalduko dira, zeren ondorio den edota aurretik egindako ikerketek zer ondorioztatu duten, besteak beste. Ondoren, gazte-talde bati buruzko ikerketa egingo da, kasu horretan kode-alternantzia zergatik egiten den azalduz. Eta azkenik, lan honetatik ateratako ondorioak zeintzuk izan diren azalduko da.

## 2-KODE-ALTERNANTZIA

### 2.1- Hizkuntzak ukipenean

Munduan hizkuntza asko eta askok elkar ukitzen dute; hau da, hainbat urtetan elkarren ondoan bizi izan dira eta batzuek horrela jarraituko dute hemendik aurrera ere. Izan ere, zaila da hizkuntza bakar batean hitz egiten duten lurraldeak aurkitzea


Euskara beste hizkuntza batzuekin ukipenean egon da betidanik (Iberian eta Akitanian hitz egiten ziren hainbat hizkuntzarekin, latinarekin, gaztelaniarekin, frantsesarekin...), eta, ondorioz, hizkuntza horien eragina oso handia izan da (eta egun ere hala jarraitzen du). Eragin horren ondorioetako bat kode-alternantzia izan da, gure eguneroko jardunean erraz aurkitzen dena. Euskal Herriko egoera soziolinguistikoaren ondorioz, ia euskaldun guztiak elebidunak dira eta, zehazki, lan hau egiteko aztertutako gazteek maiztasun handiz erabiltzen dituzte bi hizkuntzak, eguneroko bizitzan. Ondorioz, bi hizkuntzak ezagutzen eta erabiltzen direnez, alternantziarako bidea irekitzen da. Urteetik urtera, ezagutzak gora egiten du, eta, 2001eko kale-neurketaren arabera, erabilerak ere joera bera du Euskal Herrian. Nik aztertutako gazteen eskualdean, ordea, erabilerak alderantzizko joera hartu du, eta kopurua jaitsi egin da. Dirudenez, gehiago entzuten da gaztelania lagunartean, eta euskarazko jardunean ere, geroz eta gehiago jotzen dute gaztelaniara.

### **Euskal Herrian:**

Urtea	Guztira	Haur	Gazte	Heldu	Adineko	Emak	Gizon
1989	10.8	15.1	8.5	9.2	13.7		
1993	12.0	16.7	10.4	10.0	13.0		
1997	13.0	17.7	11.9	11.0	12.8	13.1	13.4
2001	13.5	19.0	13.6	11.3	12.0	13.8	13.4

Iturria: Euskal Soziolinguistika Institutua. Kale neurketa.

## Urola kostan:



Iturria: Euskal Soziolinguistika Institutua. Kale neurketa.

Goiko tauletan ikusten denez, Euskal Herrian euskararen erabilerak gora egin du, azken urteetan. Dena den, igoera hori murriztuz joan da; hau da, 1989tik 1993ra, % 1,2 igo zen euskararen erabilera; 1993tik 1997ra, % 1; eta 1997tik 2001era, % 0,5. Urola kostari dagokionez, hasiera batean gorako joera hartu zuen euskararen erabilerak; baina, ondoren, berriz ere, behera egin zuen. 2001ean egindako kale neurketan, % 6,4 jaitsi zen erabilera, 1997koarekiko, eta 1993ko ehunekoa baino beherago gelditu zen.

Ukipenean dauden hizkuntza horiek elkarri eragiten diote; ondorioz, erraz aurkitzen dira bataren ezaugarriak bestean, eta, noski, alderantziz. Ezaugarri horiek, mota askotakoak izan daitezke.

*“...desde el momento en que dos códigos lingüísticos se encuentran en situación de contacto, la interferencia puede producirse en todos los niveles: tanto en el léxico (donde más fácilmente puede darse) como en el sintáctico e incluso en el fonológico”* (Etxebarria, 2003: 3).

Interferentziaz gain, beste hainbat ondorio dakartza hizkuntzak ukipenean egoteak; besteak beste: maileguak, kalkoak edota lan honetan aztertuko den kode-alternantzia.

## 2.2- Elebitasuna eta kode-alternantzia

Elebitasuna hizkuntza ukipenezko egoera batean gerta daitekeen fenomenotzat ulertzen da (UZEI). Bi elebitasun-mota daude: gizabanakoarena eta gizartekoa.

- 1- **Gizabanakoaren elebitasuna**: gizabanakoaren baitako elebitasuna da; hau da, gizaki batek hizkuntza bat baino gehiago ulertu, hitz egin eta menderatzeko duen gaitasuna da.
- 2- **Gizartearen elebitasuna**: gizarte bati dagokion elebitasuna da; hain zuzen ere, gizarte horretan bi hizkuntza desberdin erabiltzen direnean. Gizarteko elebitasun honen barnean sartzen da gizabanakoaren elebitasuna.

Dena den, elebitasun-egoera horietan maila desberdinak egon daitezke. Maila gorena bi hizkuntzak (A eta B) bikain menperatzea litzateke, batean nahiz bestean erraztasun osoz hitz egiteko, idazteko eta irakurtzeko gaitasuna izatea. Hala ere, hori ez da ohikoena. Normalean, hizkuntza batean bestean baino erraztasun edo gaitasun gehiago izaten da. Hori dela-eta, honako elebitasun-maila hauek bereiztu behar dira:

- 1- A hizkuntzako elebakarrak: A hizkuntzan soilik hitz egiten dutenak.
- 2- Elebidunak, baina A hizkuntzan hobeto moldatzen direnak.
- 3- Elebidun orekatuak: batean zein bestean erraztasun osoz moldatzen direnak.
- 4- Elebidunak, baina B hizkuntzan hobeto moldatzen direnak.
- 5- B hizkuntzako elebakarrak: B hizkuntzan soilik hitz egiten dutenak.
- 6- Elebidun pasiboak: hizkuntza bat menperatzen dutenak, eta bestea ulertzeko gai direnak.

Bestalde, elebitasunaren inguruan iritzi kontrajarriak sortu dira. Batzuentzat, elebidun izatea guztiz aberasgarria da, eta, nolabait, ikasia izatearekin lotzen dute “*Herrialde askotan ikasia izateak elebidun izatea esan nahi du*” ( Mackey, 1967:18). Beste batzuek, ordea, elebidun izatea ez dute begi onez ikusten; izan ere, zenbaitetan bigarren hizkuntza hori inposatua izaten da, eta, horrelakoetan, hizkuntza horren aurkako jarrerak sor daitezke.

Horrez gain, gizarte elebidun batean, diglosia-egoerak ere sor daitezke, honako arrazoi hauek direla-eta. Batetik, hizkuntza bat edo bestea erabiltzea hizkuntzaz kanpoko faktoreen ondorio denean; esaterako: maila sozio-ekonomikoaren, kulturaren eta abarren ondorio. Eta bestetik, hizkuntza bat funtzio jakin batzuetarako erabiltzen denean eta beste hizkuntzak beste funtzio batzuk betetzen dituenean. Hori gertatzen da gure kasuan. Gaztelania eta frantsesa funtzio publikorako erabili izan dira, eta euskarari



ukatu egin zaio funtzio horiek betetzeko eskumena. Egun, euskarak zenbait funtzio publiko betetzen ditu, baina horiek gutxi batzuk baino ez dira.

*“La situación del País Vasco se ha definido en términos de bilingüismo y diglosia; aunque la definición exacta resulta compleja ya que la variación en las comunidades lingüísticas y los usos de las dos lenguas, que coexisten en la comunidad, es muy diferenciada... Con todo, las funciones del euskera y el castellano en la comunidad están todavía claramente diferenciadas”...*  
*“...aunque el español sigue siendo la lengua dominante, los euskaldunes (hablantes de euskera) y, por lo tanto, bilingües usan euskera en la familia y, preferentemente, en entornos no formales y el español fuera de ellos”*  
(Etxebarria, 2003: 10).

Gizarte elebidunetan dagoen gertaera ohikoenetako bat kode-alternantzia edo code-switching-a da. Hainbat urtetan, kode-alternantzia okertzat hartu izan da; izan ere, Weinreich-ek emandako definizioaren arabera, hizketa-egoera baten barruan (eta gutxiago perpaus baten barruan) ezin zen hizkuntza batetik beste hizkuntza batera mugitu. Dena den, oso maiz gertatzen da diskurtso berean bi hizkuntza txandakatzuz erabiltzea. Weinreich-ek gertaera horri buruz emandako definizioaz gain, beste hainbat eman dira; hona hemen horietatik aukeratutako bi definizio. Lehenengoa Maitena Etxeberriak emandakoa da; horren arabera, kode-alternantzia diskurtso berean bi hizkuntza txandakatzuz erabiltzea baino ez da: *“no es otra cosa que el uso alterno de dos lenguas en el mismo discurso”*. Beste definizioa, berriz, hainbat egilek (Gumperzek (1982) eta Sánchezek (1983), esaterako) erabili izan dutena da: solasaldi beraren barruan bi gramatika-sistema edo azpisistemari dagozkien hizketa-pasarteak tartekatzea”. Dena den, kontuz ibili behar da kode-alternantzia eta mailegua ez nahasteko. Maileguez hitz egiten dugunean, xede-hizkuntzaren ezaugarri fonologiko, morfologiko eta sintaktikoetara egokitutako elementuez ari gara; kode-alternantzia aipatzen dugunean, aldiz, ez da inolako egokitzapenik izango.

Kode-alternantzia aztertzean, bi ikuspuntu hartu izan dira: sintaktikoa eta funtzionala.

- 1- ***Ikuspegi sintaktikoa edo egitura mailakoa***: ikuspegi horrek alternantziaren ezaugarri sintaktikoak aztertzen ditu: alternantzia non gertatzen den (perpausaren barnean edo perpausen artean), zein kategoria aldatzen diren gehien (izenak, adjektiboak, IS osoak...).

Kode-alternantzia ikuspegi horretatik aztertu izan dutenek hizkuntza matrizeari buruz eztabaidatu dute, behin eta berriz. Batzuen ustez, bi hizkuntzek antzera eragiten dute alternantzia-hizkuntzaren egitura sintaktikoa eraikitzean; beste batzuen ustez, ordea, hori ez da horrela gertatzen. Azken horien arabera, bi hizkuntzetatik bakarrak

betetzen du eremu morfosintaktikoa, eta besteak elementu lexikoak soilik txertatzen ditu, hain zuzen, egituraren garapen sintaktikoan halako garrantzirik ez dutenak.

Bestalde, Ducarren arabera, kode-alternantzia izen sintagmaren barruan gertatzen denean, bada halako murriztapen zorrotz bat. Elementu funtzionalak (determinatzaileak, konplementatzaileak, inflexioak) finkoagoak dira; elementu lexikoak (aditzak, izenak, adjektiboak), aldiz, gehiago aldatzen dira.

- 2- **Ikuspegi funtzionala**: kode-alternantzia zergatik eta zertarako egiten den azaldu ohi da.

Orain arte egindako ikerketa soziolinguistikoen arabera, hiru joera aurki daitezke. Batzuek kode-alternantzia funtzio jakin batzuekin lotzen dute; multzo horretan koka daitezke, besteak beste, Sánchez (1983) eta Gumperz (1982). Beste batzuek, berriz, kodez aldatzea estrategia politiko bat dela esaten dute (Heller, 1992). Hau da, Helerreren iritziz, kode-alternantzia egitea alderdi sozio-politikoen mende egon daiteke. Bestalde, bada bi ideia horien artean koka daitekeen lanik ere. Esaterako, Scotton eta Ury-ren arabera, kode-alternantzia aztertzean, lehenengo egoera horretan egin den hizkuntza hautaketa aztertu behar da, eta, ondoren, alternantziak zein funtzio betetzen duen.

Euskal Herrian egin diren ikerketen artean, Muñoa (2002) eta Etxebarriaren (2003) lanak aipatu behar dira. Muñoaren arabera, diskurtso batean kodez aldatzea euskararen gaitasun urritik harago dago. Bere ustez, zergatiak ugariak izan daitezke: lexikoaren hutsuneak betetzea, testuinguru batean gertatutako egoerak azpimarratzea, diskurtso mailako funtzio konplexuagoak betetzea (diskurtso-antolaketa, esaterako)...

Bestalde, Etxebarriaren arabera, kode-alternantziak lotura handiagoa du hizkuntzarekin gizartearekin baino. Kode-alternantziaren funtzioei dagokionez, besteak beste, honako hauek aipatzen ditu: mezu bat argitzea, hizkuntza batean dauden hutsuneak betetzea eta hiztunak bere barne-sentimenduak adieraztea. Horrez gain, Etxebarriaren iritziz, kode-alternantzia bestelako ezaugarri batzuen mende dago; esaterako: hizkuntza-gaitasuna, solaskideen maila soziolinguistikoa eta komunikazio-egoera formala edo informala izatea.

### **3-IKERKETA**


Lan hau egiteko, Getaria aukeratu dut. Getaria Gipuzkoako Urola Kosta eskualdeko herri txiki bat da. 2.406 biztanleko herri hori Bizkaiko Golkoko kostaldean dago, eta Zumaia eta Zarautz ditu alde bietan. Herriaren hegoaldean, berriz, Aia dago.

Getaria herri arrantzalea izan da betidanik. Bertan, baxurako arrantza egiten da, eta biztanleen zati garrantzitsu bat bertatik bizi da. Dena den, badira beste ekonomia-jarduera batzuk ere; esaterako: abeltzaintza (behiak), nekazaritza (mahastiak), elikagai-industria (arrain-kontserbak eta txakolina), industria txikiak (batez ere, metala) eta turismoa.

Bestalde, azken urte hauetan, hainbat etorkin etorri da Getariara. Gehienek arrantzan egiten dute lan; izan ere, geroz eta gutxiago dira arrantza-munduan sartzen diren bertako gazteak. Hala ere, ostalaritzan lan egiten duten etorkinen kopurua ere nahiko altua da.

#### **Getariako datu soziolinguistikoak<sup>1</sup>:**

EUSTATen 2001eko datuen arabera, 2 urtetik gorako ia getariar guztiak euskaldunak dira (2.118 biztanle); horietatik erdiak baino gehiago alfabetatuak. Gainerako herritarren artean, berriz, 163 dira ia euskaldunak eta 46 erdaldunak.



---

<sup>1</sup> Iturria: EUSTATen 2001eko datuak.

KODE-ALTERNANTZIA LAGUN ARTEKO HIZKERAN  
Sakontze egitasmoa

Ama-hizkuntzari dagokionez, herritarren % 86ak euskara dute lehen hizkuntza; etxeko erabilera, ordea, jaitsi egiten da: 1.888 getariarrek egiten du euskaraz etxean.

	Guztira	Ama-hizkuntza				Etxean erabiltzen den hizkuntza			
		Euskara	Erdara	Biak	Beste bat	Euskara	Erdara	Biak	Beste bat
EAE	2.082.587	415.623	1.543.259	87.012	36.693	284.084	1.608.666	175.157	14.680
Gipuzkoa	673.563	254.912	366.527	40.765	11.359	182.165	392.847	94.180	4.371
Urola Kosta	66.428	46.826	16.036	2.842	724	41.054	16.608	8.390	376
<b>Getaria</b>	<b>2.406</b>	<b>2.072</b>	<b>234</b>	<b>78</b>	<b>22</b>	<b>1.888</b>	<b>219</b>	<b>283</b>	<b>16</b>

Bestalde, hezkuntza mailan, euskararen aldeko aukera da nagusia. Herriko ikastetxean (Iturzaeta Herri Eskolan), D erdua soilik dago, eta bertako ikasleek, inguruko herrietara Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza edo Batxilergoa egitera joaten direnean, euskaraz ikasten jarraitzen dute. Aurrez aipatu bezala, azken urteetan etorkin ugari etorri da Getariara, eta gehienek herriko ikastetxean matrikulatzen dituzte seme-alabak; horrela, haur horien hizkuntza integrazioa lortzen dute.

Datu horietan ikusten denez, Getaria herri euskalduna da oso; baina, azken aldian, eskualde osoan bezala, geroz eta gehiago entzuten da gaztelania (Iturria: Urola Kostako kale neurketa).

### 3.1- *Hiztunak:*

Ikerketa hau egiteko, gazte talde bat hartu dut oinarritzat. 22-24 urteko gazteak dira, eta gehienek, ikasketak direla-eta, herritik kanpora irten behar izan dute. Izan ere, Getarian 12 urte bete arte soilik ikas dezakete; hau da, DBH egitera inguruko herrietara joan beharra dute. Ikastetxean nahiz unibertsitatean, beste herri batzuetako ikasleekin egiten dute topo; horietatik asko Getaria baino herri handiagoetakoak. Nik aztertutako gazteek euskaraz egin dituzte ikasketa guztiak eta, beraz, ikaskide euskaldunak izan dituzte. Dena den, aurrez aipatu bezala, herri handiagoetako jendearekin elkartu dira, eta, hau frogatzeko daturik izan ez arren, baliteke horrek eragina izatea gazte horien hizkuntza-erabileran. (Beste ikerketa batean aldagai hori aztertzea interesgarria litzateke).

Komunikabideei dagokienez, gaztelaniaz entzuteko, ikusteko edo irakurtzeko joera handiagoa dute. Irratiaren eta telebistaren kasuan, euskarazko kateen programazioa jartzen dute arrazoitzat; izan ere, gazte horientzat programazio hobea dago gaztelaniazko komunikabideetan.

Nik aztertu ditudan gazte horien gurasoak euskaldunak dira, eta, beraz, euskara izan dute ama-hizkuntza. Datu hori oso garrantzitsua da etxean hitz egiten den hizkuntzak hiztunaren hizkuntza-erabileran eraginik duen edo ez jakiteko.

*“...para la caracterización de la muestra era importante conocer la lengua materna de cada uno de los informantes, con la finalidad de poder determinar si este hecho incidía o no en el proceso de conmutación de códigos que pretendíamos analizar” (Etxebarria, 11).<sup>2</sup>*

Beraz, aztertutako gazteek euskararen ezagutza altua dute; eguneko zatirik handiena euskaraz bizi dute, eta horretarako gaitasun osoa dute. Horregatik, ezin da esan kode-alternantzia hizkuntza gaitasun urriaren ondorio soilik denik, badira beste arrazoi batzuk alternantzia egiteko; hain zuzen, aurrerago aipatuko ditugunak.

Lan hau egiteko, lau gazte grabatu ziren (horietako bat grabatzailea bera); guztiak koadrila bereko neskak dira eta, beraz, konfidantza handia dute elkarrengan. Grabaketak 2 egunetan egin ziren, pare bat ordu egun bakoitzean, eta lagun arteko solasaldiak izan ziren, hau da, gazteei ez zitzaaien galdera berezirik egin.

### 3.2- Metodologia:

Kode-alternantzia aztertzeko datuak ahots-grabazioen bidez bildu ditut. Aurrez aipatu bezala, elkarrizketa naturalak grabatu ziren; hau da, lagun arteko elkarrizketak izan ziren. Lagun-talde horri egunen batean grabatu egingo niela esan nien, baina ez nien zehaztu zein egunetan izango zen. Ez ziren konturatu zein egunetan grabatu nien eta ohi bezalako solasaldia izan genuen. Izan ere, kode-alternantzia ez dago ondo ikusia gure artean; ondorioz, grabatzen ari nintzela jakinez gero, zer eta nola esan pentsatzen jarriko ziren eta ez zuten normalean egin ohi duten bezala hitz egingo. Grabatu ondoren, solasaldia transkribatu nuen, azterketa egin ahal izateko. Horregatik, azterketan agertuko diren elkarrizketa-zatiak entzunda bezala daude idatzita, morfologiako eta gramatikako arauak errespetatu gabe (gaztelaniakoak izan ezik).

---

<sup>2</sup> Datu horiek guztiak jakiteko, galdeketa-orri bat eman nien aztertutako gazteei, eta, bertan, euskararen erabilerari buruzko hainbat galdera zeuden. Galdeketa-orriak eranskinean gehitu ditut.

Kode-alternantzia definitzean aipatu bezala, kode-alternantzia eta maileguak bereizteko Poplack-ek erabilitako irizpidea kontuan hartu da. Poplacken arabera, kode-alternantziatzat hartzeko, hizkuntza bateko hitz edo esaldi batek bere ezaugarri fonologiko, morfologiko eta sintaktikoak mantendu behar ditu, beste hizkuntza batean tartekatzen denean. Hori arrazoitzeko, honako adibide hauek eman zituen Poplackek (gaztelaniaren eta ingelesaren arteko alternantziari dagozkio):

- 1- *They might mug you* → *Es posible que te mogueen*. Kasu horretan ingeleseko hitza gaztelaniaren ezaugarri fonetiko, morfologiko eta sintaktikoetara egokitu da; beraz, ezin da kode-alternantziatzat hartu.
- 2- *I've forgotten the real big, heavy-duty words* → *Las palabras **heavy-duty**, bien grandes, se me han olvidado*. Bigarren kasu honetan, aldiz, ezaugarri sintaktikoak soilik egokitu dira gaztelaniara, ingeleseko ezaugarri fonologiko eta morfologikoei eutsiz. Beraz, alternantzia gertatu da.

Gure kasuan, ordea, ez da hain erraza lexikoari dagokionez; izan ere, gaztelaniako eta euskarako hitz batzuk fonologikoki ez dira oso ezberdinak (calendario, rotulador, coche...). Hori dela-eta, gaztelaniako arau morfologikoak eta sintaktikoak betetzen dituztenak soilik hartu dira kode-alternantziatzat (esaterako: equipos eta ordenadores).

### 3.3- *Materialak:*

Metodologian aipatu bezala, kode-alternantziaren datuak grabaketen bidez bildu ditut. Horretarako, grabagailu digital bat erabili dut, elkarrizketak errazago transkribatzen baitira, grabagailu arrunt batekin baino. Grabagailu digitalaren bidez, elkarrizketa ordenagailuan sartzen da; hau da, elkarrizketa digitalizatu egiten da. Horrela, elkarrizketa-zati bakoitza nahi adina aldiz errepikatu daiteke, soinua kaltetzeko arriskurik gabe.

Bestalde, aztertutako gazteen datuak hobeto jakiteko, bakoitzari galdeketa-orri bana eman zitzaion (Ikusi eranskina).

### 3.4- *Transkripzio-irizpideak:*

Kode-alternantziaren funtzioak aztertzen hasi aurretik, transkripzioan erabiliko ditudan zeinu eta konbentzioak zein diren zehaztuko ditut. Hona hemen zeinu bakoitzak adierazten duena:

<b>Miren:</b>	Hiztun batek (kasu honetan Mirenek) esandakoa.
<b>?:</b>	Ez dakigu nork esan duen.
<b>=</b>	Hiztun biren txanden artean ez dago etenik; hau da, batek amaitu eta besteak hasi, inongo isilunerik gabe egin da.
<b>[</b>	Hiztun bi edo gehiago batera hitz egiten hasten diren unea. Hiztun guztien txandan seinalatzen da.
<b>/</b>	Pausa laburra, segundo erdikoa baino laburragoa.
<b>///</b>	Segundo bateko pausa. Oso luzea bada, ohar bat txertatuko da.
<b>EZ</b>	Letra larrien bidez, zerbait indartuta, ozenago edo enfasi bereziarekin esaten da.
<b>(( ))</b>	Transkripzioa egiten duenak ezin du ulertu esan dena.
<b>((etxean))</b>	Ez gaude guztiz ziur, baina uste dugu “etxean” esan dela.
<b>(eg)ingo</b>	Parentesi artean agertzen den hitz-zatia ez da esan, baina irakurleak uler dezan gehitu da.
<b>Ingo'tzut</b>	Bi hitz elkartzean egiten den laburdura.
<b>(BARREKA)</b>	Parentesi artean eta letra larrien bidez, oharrak egiten dira.
<b>a:</b>	Bokalak luzeago ahoskatzen dira.

### 3.5- *Kode-alternantziaren funtzioak:*

Ondorengo lerroetan, adibide batzuen bidez, euskaraz hitz egiten duten gazte batzuek kode-alternantzia zergatik egiten duten azalduko; hau da gaztelaniara noiz eta zertarako jotzen duten azalduko da.

#### ◇ Testuinguru jakin batzuetako egoerak azaltzeko:

Gaia: Oihana aireportuan izandako arazoak kontatzen ari da.

[1] Oihana: *ta aireportuan ginauenian / bilbon uaindikan / Madrileako abioian sartzeko / zeak / azafatak esaten diu **Eire y Oihana Larrañaga Eire y Oihana Larrañaga...** ja, ja, ja.*

[2] Oihana: *bilatu / artu / maletak fakturatu ginuzen / jo ba fakturatu ta geo / ordu erdi falta zianian / mikrofonotik **por favor última llamada del vuelo de (...)** / **por favor la última llamada***

Gaia: lagun batzuekin nola gelditu ziren kontatzen ari da Oihana.

[3] Oihana: *bueno beintzat etorri zitzaixkiun / ta: ori / asieran /// te: telefonoz deitzen ziguen / bera etortzen zianian / telefonoz deitu ziguen / da/ bueno **oye os están esperando y bajad** / ba bale!*

Goiko hiru adibideetan, Oihanak beste batzuek esandako hitzak gogora ekartzeko egin du kode-alternantzia: lehenengo bietan, aireportuko azafatak esandakoak gogora ekartzeko, eta, hirugarrenean, hoteleko harrerakoak esandakoak. Hiru kasu horietan, jatorrizko hitzuek gaztelaniaz egin zuten, eta Oihanak hori adierazi nahi du kode-alternantziaren bidez.

Gaia: aireportuko istorioekin jarraitzen du Oihanak.

[4] Oihana: *bua / artu motxilak / korrika / baina / e:!  
**pelikuletan nola ba?** motxilak artu ta / jendiai **POR FAVOR PASO / PASO...***

“Paso, paso...” horrekin, une hartan beraiek nola ibili ziren azaldu nahi die laguneri Oihanak, eta, horregatik, ordu hartan esandako hitzak errepikatzen ditu. Gainera, gertatutakoa azaltzean, Oihanak eskuak batera eta bestera mugitu ditu, jendea erditik kentzen ariko balitz bezala; hau da, une hura gertatu bezala kontatzen saiatu da.

Gaia: Oihana aireportuko lehiatilakoekin izandako elkarrizketa kontatzen ari da.



[5] Oihana: *aber / (( )) erten in ber deu dentro de una hora / y todavía estoy sin maletas y sin facturar /// ize gabe neola / ta faborez, zeoze iteko...*

Gaia: beste neska batekin izandako arazotxoak kontatzen ari da Oihana.

[6] Oihana: *gu azkenian / o sea / nik esan nion beai yo no quiero (...) nada / e? si estas celosa tú verás porque estás celosa / yo no he hecho nada para que tú estés celosa / o sea ke / zu selosa bazaude / o sea / zure problema da*

5. adibidean ikusten den bezala, Oihana aireportuan izandako arazoak kontatzen ari da, eta tartean, leihatilan zegoen azafatarekin izandako elkarrizketa azaltzen du. Elkarrizketa euskaraz kontatzen hasten da, baina, berehala, azafatari hitz egin zion bezala hitz egiten die lagunei ere. Hala ere, euskaraz hasten da berriro, eta, gutxi gorabehera, gaztelaniaz esandakoa euskaraz errepikatzen du (“ize gabe neola, ta faborez, zeoze iteko”). Badirudi errepikapen horrekin ordura arte esandakoa laburtu egiten duela, ondoren, bere narrazioarekin jarraitzeko.

Antzeko gauza gertatzen da 6. adibidean ere. Oihanak neska batekin izandako elkarrizketa azaldu nahi du. Euskaraz hasi da, baina, ondoren, neska hari esandakoa kontatzeko, gaztelaniara jo du. Dena den, 5. adibidean bezala, gaztelaniaz esandakoa euskaraz laburtzen du, berriz ere, eta, ondoren, kontakizunarekin jarraitzen du.

Beraz, adibide horietan ikusi denez, oso ohikoa da gazte horientzat beste testuinguru batean gaztelaniaz egin dena gogora ekartzekoan gaztelania erabiltzea. Gainera, kode-alternantzia horrek bizitasuna ematen dio narrazioari, dramatismo gehiago. Izan ere, gertaera guztiak estilo zuzenean kontatzen dira, eta horrek bizitasuna ematen dio kontaketa bati.

◊ **Adierazi nahi denari konnotazio edo esanahi berezia emateko: indartzeko, arbuiatzeko...**

Gaia: adibide hauetan ere aurrez aipatutako gaiari eutsi zaio: aireportuko istorioak.

[7] Oihana: *azkenian / bua / LE MONTE UN POLLO!*

Adibide horretan, Oihana leihatilako azafatarekin izandako arazoa kontatzen ari da. Izan ere, beraien maletak falta zirela-eta, inork ez zien azalpenik ematen; beraz, azkenean, beraien maletak aurkitzeko eskatu zien Oihanak, nahiko haserre. Hain zuzen, haserre hori adierazteko jo du gaztelaniara; haserreari indar handiagoa emateko. Esaldi

hori esaterakoan, gainera, Oihanak aurpegia ere aldatu egin du; hau da, norbaiti errieta egitean jarriko lukeen aurpegia jarri du.

[8] Oihana: *bua / artu motxilak / korrika / baina / e:!* *pelikuletan nola ba?*  
*motxilak artu ta / jendiai* **POR FAVOR PASO / PASO... ///** **UN CUADRO!**

Gaia: Oihana ordua ez errespetatzeari buruz ari da.

[9] Oihana: *gelditzen baldin bazea amarretan norbaitekin / amarretan asi*  
*dutxatzen / baina lasai / dutxa:tu / ondo eman kre:ma / pinta:tu / lentiya jarri /*  
*ta de todo! ((porque)) ///* **una pasada!**

Nire iritziz, 8. eta 9. adibideetan, egoera bat baloratzeko egin du kode-alternantzia. Lehenengoan, egoera hura guztiz barregarria zela adierazi nahi du, eta gertaera hartan pentsatze hutsarekin, lotsatu egiten da; aurpegia ere eskuez estaltzen du. Bigarrenean, berriz, berandu iriste hori gehiegizkoa dela adierazi nahi du Oihanak. Gaztelaniazko hitzak esatean, gainera, ahotsa igo egin du, eta, aldi berean, askoz ere polikiago ahoskatu du; nolabait, indarra eman nahi dio adierazpen horri. Dena den, Oihanak gauza bera esateko ez du beti gaztelaniako forma erabiltzen; izan ere, elkarriketa berean, esapide hori euskarazko forman erabili du.

**Adib.:** Oihana: *bai / jator jatorrak / Zulakys on on on on ona* [*baina pasada bat*  
Onditz: [bai  
Oihana: *eh!* [*pasada bat*  
Edurne: [bai  
Oihana: *pasada bat / bai / krixton pasada!*

Gaia: aurrez aipatutako gai bati buruz ari da, neska batekin izandako arazotxo bati buruz.

[10] Oihana: *o sea ke / zu selosa bazaude / o sea zure problema da / ta ondo*  
*egongo gea ondo eraman ber badeu / ta bestela / me da igual (( )) / ba olaxe ///*  
*ta ize enun in / o sea / ni tontear con él / ni nada / o sea*

Diskurtso horretan, gaztelaniazko bi esapide azpimarratu dira: “me da igual” eta “ni tontear con el, ni nada”. Lehenengoarekin, neska horrekin harremanik izatea edo ez izatea ez zaiola axola adierazi du Oihanak, gaztelaniako forma erabiliz. Kasu horretan, beste neskarekiko mespretxua edo arbuioa adierazi nahi du Oihanak; benetan, ez zaiola batere axola. Nolabait esateko, kutsu negatiboa adierazteko jo du gaztelaniara. Bigarren esapidea, berriz, esandakoari adierazkortasuna emateko erabili du; zinez, ezer ez zuela egin adierazteko.

Gaia: afari batez hitz egiten ari dira.

[11] Idoia: *beatzitan*  
Oihana: *ze bokailua jatea?*=  
Idoia: =*bai*  
Oihana: *zerrena jan ber'tzu /de roquefort?*  
Idoia: *ja ja / ba igual*  
(...)  
Oihana: *igual roquefort más fuerte / ta nei igual geyo gustatu roquefort*

Elkarrizketa-zati horretan, kodez bi aldiz aldatzen duela ikusten da. Lehenengoan, Oihanak “de roquefort” esaten duenean, roquefort gaztaz egindako bokadiloari buruz ari da. Euskaraz esanez gero, bokadiloa zerez egin dagoen esan behar du, azalpen osoa eman behar du; horregatik, errazera jo eta gaztelaniako forma erabili du: (bocadillo) de roquefort. Ondoren, bokadilo horri buruzko bere iritzia eman du; hau da, zapore fuerteagoa izanik, berari gehiago gustatzen zaiola esan du. Zapore fuerteagoa duela esateko, Oihanak gaztelaniara jo du, agian, “más” horrekin indar gehiago emateko.

Gaia: Idoia goizean egin duena kontatzen ari zaio lagunei.  
[12] Idoia: *kriston pelota pila in diot eta [ ja*  
Edurne: *[ja ja ja=*  
Onditz: =*pixkat (( ))*  
Idoia: *joe / kumunea jun nai ta /// in det sekadora ta ipini: / labadora ipini: / txuriana / ya soinua aitzeko ta (( )) / bua / lanian /// geo gora jun nai=*  
Oihana: =*ya / marcando terreno*

Goizean etxeko lanak egiten aritu dela kontatu die lagunei Idoiak. Hori dela-eta, zerbait lortu nahian, ama lausengatzen ibili dela egotzi nahi izan dio Oihanak; apur bat, adarra jo. Horretarako, kodez aldatu eta gaztelaniako hitzak erabili ditu, bi hitz horiekin pentsatzen duen guztia labur adieraztea posible dela ikusten baitu, eta, agian, gehiago kostatzen zaio euskaran horretarako baliabiderik aurkitzea. Bestalde, “marcando terreno” gaztelaniako esapidetzat ere har daiteke; hau da, zerbait adierazteko asko erabiltzen den esaldizat. Beraz, esapideen atalean ere sartuko litzateke (4. atalean).

Gaia: Oihanaren aireportuko istorioak.  
[13] Oihana: *buelua / eztakit ze marka zan / ranaer edo hauetako batekin / e: / Madrileaino / baina buel e: / maletak eta fakturatzen ginuzen zeakin (( )) / ta orduan / ba bueno / ba yasta.*

Oihanaren diskurtso horretan, “yasta (ya está)” makulua ikus daiteke. Makuluak diskurtso batean, behin eta berriz erabiltzen diren hitzak, denbora irabazteko edota zerbait laburtzeko balio duten hitzak eta esapideak dira. Kasu horretan, Oihanak kontatuko duen gertaeraren sarreratxoa egin du, eta, ondoren, kontaktarekin jarraitu aurretik, halako geldialdi bat egin nahi izan du. Horretarako, etenalditxo hori egiteko,

gaztelaniako makulu ezagun hori erabili du; izan ere, oso barneratuta dago getariarren artean eta, oro har, euskal hiztun gehienen artean.

Gaia: ordua ez errespetatzea (aurrez ere aipatua).

[14] Oihana: *gelditzen baldin bazea hamarretan norbaitekin /hamarretan hasi dutxatzen / baina lasai / dutxa:tu / ondo eman kre:ma / pinta:tu / lentiya jarri / ta de todo!*

Adibide horretako makuluaren bidez, Oihanak nahi den guztia egiteko denbora ematen duela adierazi nahi die lagunei. Euskaraz badu hori esateko biderik (seguru asko, “ta danetik” esango luke); baina, kasu horretan, gaztelaniara jo du, esandakoa indartu nahi duelako. Gainera, diskurtso horretan, Oihanak ozenago eta indar handiagoz ahoskatu du gaztelaniazko makulu hori. Nire iritziz, “todo” hitzak badu zerbait berezia; hau da, ahoskatzean, halako indar berezi bat eskatzen du.

Adibide horiez gain, beste hainbat ere aurkitu dira; guztiak ere, esan nahi dutenari konnotazio berezia emateko. Hona hemen adibide horietako batzuk: **vuelcita, guapísimo, increíble, perfecto, simpatiquísima...**

◊ **Informaltasuna adierazteko:** zenbaitetan, gaztelaniara jotzen da, euskaraz gauza bera esateko erabiltzen den modua formalegia iruditzen zaigulako. Hona hemen adibide batzuk:

Gaia: afari bati buruz hitz egiten ari dira.

[15] Idoia: ((*fortini*))= (pasta-plater baten izena)

Onditz: =nei *bua* / *earra* [e?

Oihana: [ta *guria*'re **la leche** / e?

Adibide horretan, “la leche” esapidea azpimarratu da. Oihanak bere platera ere oso ona zegoela adierazteko erabili du gaztelaniazko esapide hori, nahiz eta euskaraz hori adierazteko modua izan (esaterako, sekulakoa). Hau da, errazagoa egin zaio gaztelaniazko forma erabiltzea, informalagoa iruditzen baitzaio.

Gaia: Idoia Amerikan bizi diren euskaldunei buruz telebistan ikusitako saio bat azaltzen ari da.

[16] Idoia: *beste neska bat / ba orrei esaten tzioena / ba ori / farrak eta ola / ta joe / ezin tzala konparatu / ja ja ja hemengo farrak eta anguak /// emen tzala / ba / la bomba ja ja ja / kriston gozamina!*

Adibide horretan, telebistan agertzen zen neskaren iritzia gogora ekartzen ari da Idoia, eta, haren iritiz, hemengo festak izugarri onak zirela adierazi nahi du. Baina, “izugarri onak” esatea formalegia da Idoiarentzat; beraz, era informalean eta adierazkortasun gehiagorik esateko beste modu bat aurkitu nahi du. Une batez, forma aurkitu nahian, pentsatzen gelditu da, hori argi erakusten du “ba” makuluaren erabilerak. Azkenean, buruan duen ideia adierazteko, gaztelaniako forma aurkitu du lasterren. Geroago, ordea, euskarazko forma ere aurkitu du, eta, orduan, ideia bera euskaraz adierazi du: kriston gozamina!

Ondorengo lau makulu hauek ere oso ezagunak dira euskal hiztunontzat; are gehiago, gaztelaniako makulu hauek ugarien erabiltzen direnak direla esatera ausartuko nintzateke; hain zuzen: **es que, o sea, porque** eta **a ver**. Forma horien euskarazko aldagaiak nahiko formalak dira: “hau da”, “zeren” eta “ea”, besteak beste. Beraz, gaztelaniako formak erabiltzera errazago jotzen dela pentsa daiteke. Lagun-taldeari egindako grabaketetan behin eta berriz agertzen dira lau makulu horiek; horregatik adibide batzuk aukeratu dira.

## O sea

Gaia: neska batekin izandako arazotxoak kontatzen ari da Oihana.

[17] Oihana: **o sea** / *gu azkenian* / **o sea** / *nik esan nion beai yo no kiero (...) nada / e? si estas celosa tu beras porke estas celosa / yo no e etxo nada para ke tu estes celosa / o sea ke / zu selosa bazaude / o sea / zure problema da*

## Porque

Gaia: aireportuko istorioak.

[18] Oihana: *ize gabe neola / ta faborez / zeoze iteko / porque ezin nula ize gabe jun*

Gaia: Idoia telebistako saio bati buruz hizketan.

[19] Idoia: *o sea / graziya iten'tzin / porke / han bizitza ta:*

## Es que...

Gaia: afari bati buruz hizketan.

[20] Edurne: *nola zan? tarta* [( )]  
Idoia: *[geo / (fortini) jan da geo* (( )]  
?: trufitos  
Onditz: *earra txapa eman nun*  
Idoia: *ta geo / (( )*  
Oihana: zer?  
Idoia: ((fortini))  
Isilunea  
Idoia: *trufito /// ya / es que*

Gaia: janari bati buruz hitz egiten ari dira.

[21] Oihana: *es que neretzat otza bezela gelditzen da / ez? berotu bai / baina barrua / potolua dan*  
Idoia: *e:z*  
Oihana: *ez / [neria / behintzat / hola*  
Idoia: *[keba / ezta: / buelta i buelta / ta bestela / mikroondasian / nik mikroondasian iten det /// minutu: batetik ez ta (( ) / es que gordinik jatia're badakazu*

## A ver...

Gaia: aireportuko istorioak.

[22] Oihana: *fakturatzeko / ta bileteik ez /// a ver / Eire ixterika batian nearrez aireportuan / ni / bueno / telefonoz deitu agentzira / marruaka / angu anguakin / (( ) /// azkenian / bua / LE MONTE UN POLLO /// a ver / (( ) erten in ber deu dentro de una ora / i todabia estoi sin maletas i sin facturar /// ize gabe neola / ta faborez / zeoze iteko / porke ezin nula ize gabe jun /// jo a ver ze in ber nun han aurrenengo egunetik ezer gabe?*

Gaia: afari bati buruz hitz egiten.

[23] Idoia: *ta geo olako batian engantxatu za:n tarta: arekin / ta galdetu zun a ver ze tarta zan da / tarta de e e*

◊ **Esapideak:** zenbaitetan, gaztelaniazko esapideak erabiltzen dira euskarazko jardunean. Batzuetan, esandakoari bizitasuna emateko erabiltzen dira; beste batzuetan, berriz, ez dute ezer berezirik adierazten, hiztunek oso barneratuta dituzten seinale. Getarian, esaterako, asko erabiltzen dira. Grabatutako elkarrizketa horietan ere, behin eta berriz aurkitu dira horrelako kasuak; hona hemen adibide batzuk:

Gaia: lagun-taldea gauean zer egin pentsatzen ari da.

[24] Idoia: *geo bueno / sobre la marcha*

Edurne: *bai [ikusiko deu bai*

Idoia: *[bokailua jan da geo ikusiko deu / igual gogoik ((eztakau))=*

Onditz: *=ni beintzat pixkat [apalankauta nao*

Idoia: *[bai / ni re bai /// ba orregatikan / igual perez a o:*

Oihana: *nik ez dakit / [kafia artzea erten / igual ta*

Onditz: *[bestela, nire igual (( )) ateako nai kafia artzea o:=*

Idoia: *=ba:i*

Oihana: *(( ))*

... (isiltasuna)

Idoia: *ementxe lasai lasai / ta geo / sobre la marcha / ze ingo al deu bueltita bat? o igual ez / igual inork ez daka gogoik*

Oihana: *nik uain / no prometo nada / o sea / nao (( ))*

Lagun-taldearen solasaldi horretan, Idoiak bi aldiz esan du “sobre la marcha”. Gaztelaniako esapide horren bidez, gauean zer egin afaldu eta kafea hartu ondoren erabakiko dutela adierazi nahi du. Esan bezala, esapide hori oso barneratuta dago Getarian; horregatik ez dut uste kasu honetan asmo jakin batekin erabili duenik. Dena den, euskarazko forma ere (ikusiko deu) asko erabiltzen dela aipatu behar da, eta, baliteke, Idoiak ere beste egoera batzuetan euskarazko forma erabiltzea. Oihanaren “no prometo nada” esapideari buruz ere, gauza bera esango nuke, oso barneratuta duen esapidea dela baitirudi.

Aurrez aipatu bezala, “marcando terreno” (12. adibidea) atal honetan ere sartuko litzateke. Izan ere, esanahi berezia duen esaldia da, eta Getariako hiztunek sarri erabiltzen dute.

◊ **Bestelakoak:** azken multzo honetan, buruan duten ideia euskaraz esateko modurik aurkitzen ez duten kasuak edota berezko izenez egiten dituzten aipamenak sartu dira, besteak beste.

Gaia: afari bati buruzko solasaldia.

[25] Oihana: *ez ona izan tzan atea zitzaizun eran/ en plan TRUFITOS!*

Kasu horretan, esateko modua azpimarratu nahi izan du Oihanak, baina ez du asmatu euskaraz hori nola esan. Horregatik, gaztelaniako forma erabili du: en plan.

Hurrengo adibidean (26. adibidean), kode-alternantzia egin da, baina nahiko kasu berezia da.

Gaia: afari bati buruz hitz egiten.

[26] Idoia: *ta geo olako batian engantxatu za:n tarta: arekin / ta galdetu zun aber ze tarta zan da / **tarta de e e***  
Oihana: **de almendras**? (dudatan dago)  
Idoia: ez  
Onditz: *intxaur=*  
Idoia: **=de intxaurras**

Elkarrizketa horretan, Oihanak kode alternantzia egin du Idoiak hasitako esaldiari jarraitu nahian, baina, ez du erantzun egokia eman. Beraz, Idoiak Oihanak esandakoa zuzendu du, hark erabilitako egiturari eutsiz, baina gaztelaniako egitura horretan euskarazko unitate lexikoa erabili du (de **intxaur**-as). Beraz, adibide hori egokiagoa izango litzateke ikuspegi sintaktikoan aztertzea.

Zenbait kasutan, gauza jakin baten izen berezia (hau da, berezkoa) mantentzeko egin da kode-alternantzia; esaterako, honako kasu hauetan:

Gaia: Idoia telebistan ikusitako pelikula bati buruz ari da.  
[27] Idoia: *geo / primera kadenan beste bat tzeon / **El gran día** o olako zeoze.*

Gaia: goizean zer egin duen kontatzen ari da.  
[28] Idoia: *kozinatzeko katxarro danak artu txut (( )) / geo pabua **vuelta y vuelta** jan det*  
Onditz: *ja ja ja / pabua **vuelta y vuelta***  
...  
Idoia: *keba/ ezta: / **vuelta y vuelta** / ta bestela / mikroondasian*

Adibide horretan, “vuelta y vuelta” janari-etxe batek produktu bati jarritako izena da. Idoiak aipatu du lehenengo aldiz jaki hori; eta, ondoren, besteek jaki horri erreferentzia egin dioten bakoitzean, gaztelaniako forma erabiltzen jarraitu dute.

“Ez?” formaren kasua berezia da; izan ere, forma horren euskarazko aldaera ezaguna da euskaldun guztientzat, eta erabili ere askok erabiltzen dute. Beraz, gaztelaniako forma erabiltzea ohitura kontua izan liteke. Hona hemen adibide batzuk:

## No?

Gaia: aireportuko istorioak.  
[29] Eburne: *earra mobida!*  
Oihana: *asiera earra*  
Onditz: *bueno / baina geo ondo, **no?***



Gaia: telebistako saio bati buruzko kontakizuna.

[18] Idoia: *ta esaten tzioen / ba aber etorriko litzakeen onea bizitzea / no? ta gustora / uain ezetz / ikasketak ai dala iten / ta ikasketak bukatu arte/ ezetz/ baina geo / prest egongo litzakela onea etortzeko bizitzea / o sea/ gustora /// o sea / graziya iten tzin / porque an bizitza ta (( )) no?*

Aurrez aipatu bezala, euskarazko forma ere asko erabiltzen da, baita grabatutako gazte horien jardunean ere.

Gaia: jaki bati buruz berriketan.

[30] Oihana: *es ke neretzat / hotza bezela gelditzen da / ez? berotu bai / baina barrua / potolua dan*

## **4-ONDORIOAK**

Lan honetan, Getariako gazteen artean kode-alternantzia zergatik eta zertarako egiten den aztertu dut. Aurrez aipatu bezala, grabaketen bidez bildu da informazioa, eta gero, elkarrizketa transkribatu ondoren, kasu bakoitzean alternantzia zein helbururekin egin den ikusi da (batean edo bestean, alternantziak ez zuen helburu jakinik). Hautatutako gazteak 22-24 urteko neskak izan dira, eta guztiek euskara izan dute ama-hizkuntza. Beraz, hiztun mota horrekin, honako ondorio hauek atera ditut.

Egindako azterketan ikusitakoaren arabera, Euskal Herriko beste gazteen artean bezala, Getariako gazteen artean ere kode-alternantzia nahiko ohikoa dela esan daiteke; bai eta alternantzia horrek hainbat funtzio betetzen dituela ere. Gazte horiek elebidunak izanik, euskarazko jardunean gaztelaniara jotzen dute, zenbait egoeren inguruko azalpenak emateko. Arrazoiak ugariak dira. Batzuetan, aurrez bizitako egoerak gogora ekartzeko aldatzen dute kodez (1. adibidea); hau da, batak edo besteak esandako hitzak gogoratzeko aldatzen dute. Funtzio hori ohikoa dela esan daiteke, beste ikerketa batzuetan ere aurkitu baitaiteke (Muñoa; 2002, 13. Beste batzuetan, berriz, adierazi nahi denari konnotazio berezia emateko erabiltzen da kode-alternantzia (7. adibidea). Dirudenez, zenbait esapidek ez dute esanahi berbera hizkuntza batean eta bestean; beraz, kasu horietan, gaztelaniako forma erabiltzen dute esandakoari adierazkortasuna emateko, indartzeko, kutsu negatiboa emateko edota denbora irabazteko, besteak beste. Aurrekoaren antzera, funtzio hau Euskal Herriko beste lekuetan ere gertatzen da (Muñoa; 2002, 13).

Bestalde, solasaldi informalagoak egiteko ere gaztelaniara jotzen dutela esango nuke. Maitena Etxebarria ere kode-alternantzia informaltasunaren eta formaltasunaren menpe dagoela aipatzen du (Etxebarria, 2003, 14). Hau da, gaztelaniako makuluak eta esaldiak euskarazkoak baino informalagoak iruditzen zaizkie hiztun askori; horregatik gaztelaniazko formak erabiltzen dituzte (15. adibidea). Badira gaztelaniazko esapideak oso barneratuta izateagatik kode-alternantzia egiten den kasuak ere (24. adibidea). Azkenik, kode-alternantzia beste zenbait kasutan ere egiten dutela ikusi da; esaterako, zerbaiten izen bereziari eutsi nahi zaionean (27. adibidea). Beraz, Getariako hiztunengan alternantziak dituen funtzioak beste ikerketa batzuetan aurkitutakoen antzekoak direla esan daiteke (Etxebarria, 2003; Muñoa, 2002; eta Gumperz, 1982, besteak beste)

Azterketa honen helburua herri euskaldunetan ere kode-alternantzia eguneroko ogia dela erakustea zen; hau da, euskarako jardunean gaztelaniako hitzak eta esapideak erabiltzea ohikoa dela erakustea. Nahiz eta azterketa xumea izan, helburua lortu delakoan nago. Beraz, euskara bizi-bizirik dagoen eta hiztunek ezagutza-maila altua duten lekuetan ere kode-alternantzia egiten dela ikusita, hizkuntzaren ezagutzatik harago dagoen fenomeno dela esan daiteke, helburu ezberdinak lortzeko erabiltzen den fenomeno.

Bestalde, sarreran aipatu bezala, lan hau etorkizunean egin daitezkeen beste ikerketen osagarri edo abiapuntu izan daiteke. Esaterako, Getariako euskaldunek egiten duten kode-alternantzia sakonago aztertzeko eta ondorio orokorragoak ateratzeko, hiztun-eredu zabalagoa hartu beharko da oinarritzat: adin eta sexu ezberdinekoak, egoera soziolinguistiko anitzekoak, ama-hizkuntza euskara ez den beste hizkuntza bat izan dutenak... Horrela, oinarri zabalagoa izanik, ondorioak ere orokorragoak izango dira, eta, beraz, egindako beste ikerketekin alderatzeko datu fidagarriagoak izango ditugu.

## **5-BIBLIOGRAFIA:**

- DUCAR, Cindy; “El “Code-Switching” y el efecto de los elementos funcionales”, in *Divergencias*, volumen 1, 2003.  
[www.coh.arizona.edu/spanish/divergencias/archives/fall2003/Code-Switching.pdf](http://www.coh.arizona.edu/spanish/divergencias/archives/fall2003/Code-Switching.pdf)
- ESNAOLA, Imanol; “Soziolinguistikaren oinarritzko kontzeptuak”, Hiznet 2004-2005 ikasturtea.
- ETXEBARRIA, Maitena; “Español y Euskera en Contacto”, *Lingüística en la red*, Euskal Herriko Unibertsitatea, 2003.  
[http://www2.uah.es/linred/articulos\\_pdf/LR\\_articulo\\_10072003.pdf](http://www2.uah.es/linred/articulos_pdf/LR_articulo_10072003.pdf)
- GUMPERZ, J; “Conversational code switching”, in *Discourse Strategies*; Cambridge University Press, 1982.
- HELLER, M.; “The politics of code-switching and language choice”, *Journal of multilingual and multicultural development*, 13, 123-142, 1992.
- MACKEY, W.F.; “Bilingualism as a world problem”, E.R. *Adair Memorial Lectures*, Harvest House, Canada, 1967.
- MYERS SCOTTON, C. eta URY, W.; “Bilingual Strategies: the social functions of Code-Switching”, in *International Journal of the sociology of language*, 13, 5-20 orr., 1977.
- MUÑOA, Inma; “Zergatik eta zertarako erabiltzen ditugu euskara eta gaztelera solasaldi berean? Kode-aldaketaren funtzio pragmatikoak”, *Bat* 42. zk, 53-63. orr; 2002.
- POPLACK, Shana; “Sometimes I’ll start a sentence in Spanish Y TERMINO EN ESPAÑOL: toward a typology of Codeswitching”, in *Linguistics* 18, 581-618, 1980.
- SÁNCHEZ, R.; *Chicano Discourse*, Rowley, Newbury House, 1983.
- UZEI; *Hizkuntzalaritza / 1, Hiztegia*, Elkar, Donostia.
- WEINREICH, Uriel; *Languages in contact*, New York, Linguistic Circle of New York, 1953.

- Interneten aurkitutako hainbat artikulu:

⊕ Andoni Egaña, Joxerra Gartzia eta Kike Amunarriz;  
“Euskararen kalitatea; zertaz ari garen, zergatik eta zertarako  
(laburpena)”; [www.argia.com/euskararenkalitatea.htm](http://www.argia.com/euskararenkalitatea.htm)

⊕ Diego Egizabal; “Kuadrillategi egitasmoaren emaitzak 2001-  
2003”; [http://www.erabili.com/zer\\_berri/muinetik/1091089170](http://www.erabili.com/zer_berri/muinetik/1091089170)

⊕ Einar Hangen; “Elebitasunaren Estigmak”; The Ecology of  
Language: Stanford University Press, California, 1972;  
<http://www.eirelink.com/bremor/elebidun.html>

## **6-ERANSKINA:**

Aztertutako gazteei euskararen erabilerari buruzko galdeketa-orri bat betetzeko eskatu nien. Bertan, eguneroko jardunean, euskara norekin eta zenbat erabiltzen duten argitzeko galderak erantzun behar izan zituzten. Hona hemen galdeketa-orriaren eredu:

### **GALDEKETA-ORRIA:**

**Jaioterria:**..... **Adina:**.....

**Bizilekua:**.....

**Gurasoak euskaldunak al dira?**

**Ama:**.....

**Aita:**.....

**Etxean zein hizkuntzatan hitz egiten duzu?**

**Euskaraz**

**Erdaraz**

**Batzuetan euskaraz eta besteetan erdaraz**

**Lagunartean zein hizkuntzatan hitz egiten duzu?**

**Euskaraz**

**Erdaraz**

**Batzuetan euskaraz eta besteetan erdaraz**

**Ikasketak zein hizkuntzatan egin dituzu?**

**Beti euskaraz**

**Ia beti euskaraz**

**Erdiak euskaraz, erdiak erdaraz**

**Ia beti erdaraz**

**Beti erdaraz**

**Ikaskideekin zein hizkuntzatan hitz egiten duzu?**

**Euskaraz**

**Erdaraz**

**Batzuetan euskaraz eta besteetan gaztelaniaz**

**Komunikabideak zein hizkuntzatan erabiltzen dituzu?**

**Egunkaria:**

**Euskaraz**

**Erdaraz**

**Irratia:**

**Euskaraz**

**Erdaraz**

**Telebista:**

**Euskaraz**

**Erdaraz**

**Besterik gehitu nahi?.....**

.....

.....